



ALEA

arabako aldizkaria

IZASKUN ABAIGAR ETA ANE ZELAIA

**"NORBAITEN AGINDUA BAGENUEN,
GEHIENGO SOZIALARENA GENUEN"**

2019
2. sehilakoa

VITORIA
GASTEIZ
UPN 2019

EMPLEGURAKO
PRESTAKUNTZA

www.vitoria-gasteiz.org/emplegua

@VG_emplegformak

25 ikastaro
aurrez aurre
eta 250 online



Erakunde Erakunde
Erakunde Erakunde
Erakunde Erakunde



Lanbide
Lanbide Erakunde
Lanbide Erakunde



hazi
hazi Erakunde
hazi Erakunde

hazi



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz



ALEA 201

2019-07-12 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ERLANTZ ANDA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Arte Ederren museoko altxorrak.
- 8 **Protagonistak.** Izaskun Abaigar eta Ane Zelaia, 11/2013 sumarioan auzipetuak.
- 12 **Iritzia.** Iñaki Lazkano, 'Zaharrean'.
- 14 **Sarean.** #Flipatu.
- 15 **Iruditan.** Laudioko Tubacex enpresako lan istripuak eragindako amorrua.
- 16 **Gizarte.** Gasteizko Udalak eta Jaurilaritzak sustatu nahi duten Magnet Erakarri planarekin kritiko.
- 18 **Politika.** EAJren eta PSEren udal gobernuak eta taldeak aurkeztu dituzte.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Zinema.** Sormena landuko dute hilaren 16an hasiko den Zinelekun.
- 23 **Musika.** Gasteizko jazzaldia, ate joka.
- 24 **Gizarte.** Euskal Sagardoa jatorri deiturako koordinatzaile Unai Agirre, uztailaren 20ko jaiaz.
- 26 **Nutrizioa.** Nagore Enciso, 'Bikini operazioa'.
- 27 **Gure bazterrak.** Burgu.
- 28 **Denbora-pasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Iñaki Lazkano eta Nagore Enciso.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Mundu galduari buruz arteak esateko duena

Gasteizko Augustin-Zulueta jauregia bera harribitxia bada ere, barruan altxor gehiago gordetzen ditu Arabako Arte Ederren Museoak. Haren burua "berrasmatu" behar izan duen museo horrek bereziki XIX. eta XX. mendetako artea lantzen du, Espainiakoa zein Euskal Herrikoa. Artelan bakoitzak istorio bat du atzean.

Testua: **Juanma Gallego.**
Argazkia: **Arabako Arte
Ederren Museoa.**

Artelanak berez mintzatu ohi dira ikuslearekin, baina lan horien inguruko testuingurua ezagutzea da benetan artearen magia abiatzen duena. Arabako Arte Ederren Museoan ere gertatzen da hori. Augustin-Zulueta jauregiko aretoetan 250 bat artelan erakutsi ohi dituzte, museoak dituen funtsen %12, gutxi gorabehera. XIX. eta XX. mendetako Espainiako artea erakusten da bertan, eta, bereziki, 1850-1950 bitarteko euskal artea. Horietako bakoitzaren atzean istorio bat dago, eta, zenbaitetan, gainera, istorio zirrargarria. Eta, garrantzitsuena agian, horietako asko oraindik ere aurkitzeko daude, begirada berrien zain.

Kontakizun horietako batzuk Ignacio Diaz Olano (1860-1937) margolariaren txokora iristean atera dira, museoko zuzendari Sara Gonzalez de Aspurren eskutik. *Jatetxea* izeneko margoa bildumaren pieza esanguratsuenetakoa dela azaldu du. "Kontuan izan behar dugu goi gizartea jatetxeetara joateko ohitura berez XIX. mendekoa dela. Ordura arte, nobleek haien etxeetan jasotzen zituzten bisitak". Jatetxearen barruan dauden dirudunen eta kanpotik begira ari den neskatiaren arteko kontrastea gogorra da. Bertan dagoen pertsonaia bat beste hainbat margotan errepikatzen dela azaldu du Gonzalez de Aspurrek. Besteak beste, *Kalbarioko erromeriako itzulera* eta *Lisatzaileak* izenekoetan. Diaz Olano margolariak Erroman ezagutu zuen amorante bat da, hain zuzen, Maria Antonieta Proietti modeloa, eta haren alaba ere azaltzen da koadroan, neskati la txiro baten moduan.



Museoan dauden lan ezagunen artean daude horiek, baina luzea da zerrenda. Fernando de Amurik (1866-1956) margolariak ere areto propioa du, eta bertan jasota daude Arabako zein Euskal Herriko beste hainbat txokotako paisaiak, gehienak inpresionismoaren bidez jorratutakoak.

Museoak jaso duen azken ekarpen handia Juan Celaya Fundazioarena izan da, lau urterako. "Bilduma garrantzitsua du fundazioak, oso handia eta zabala, eta horregatik beraiekin adosten ibili gara museoak gordailuan hartuko zituen artelanen zerrenda", azaldu du zuzendariak. Bilduma horretan, garrantzi berezia du Aurelio Arteta (1879-1940) artistaren *Gerraren triptikoa* izenekoak. "Hau artelan enblematikoa da artearen historian", esan du adituak. Espainiako Gerra Zibilean izandako sufrikarioak bildu zituen Artetak hiru piezez osatutako lanean. Dena dela, fundazioaren lagapenaren barruan ere ospe handiko beste hainbat artelan garrantzitsu daude, besteak beste Zubiaurre anaien hainbat koadro.

Ikerketa lana

"Gure irizpidea da ekarritako bildumek zaintzen ditugun funtsekin lotura bat izan behar dutela, eta atzean ere ikerketa bat egon behar dela", nabarmendu du adituak. Batez ere, euskal artearen aldeko apustua egiten dute, "bereziki besteek jorratzen ez dituzten arloetan". Eta arte hori erakustea bezain garrantzitsua da horien gaineko ikerketa egitea, emaitzak interesa duten ororen esku jarrita, euskaraz eta gatzeleraz argitaratutako katalogoetan. Dena dela,

Gasteizko Augustin-Zulueta jauregian kokatuta dago Arabako Arte Ederren Museoa. 1941ean erosi zuten etxea.

Diaz Olanoren 'Jatetxea' koadroan garai bateko kontraste sozialak jasotzen dira. Barruan, goi gizartea; kanpoan, pobrezia.

museoak berak behin eta berriz bere burua "berrasmatu" behar izan duela adierazi du zuzendariak. "Funtsean, gurea Arabako gainerako museoaren ama izan da". Diputazioak 1941ean erosi zuen jauregia, eta, denbora askoan, orain Artiumen, Bibaten edota Elizbarrutiko museoan dauden funtsak bertan egon ziren. Denborarekin museo horiek guztiek haien ibilbide propioak hasi zituzten, baina jatorrizko sehaskan espazioaren arazoa bere horretan mantendu da.

Baliabide urriak dituzte: bi lagun baino ez dira aritzen zuzenean museoaren kudeaketan, eta gainerako zerbitzuak kanpotik jasotzen dituzte. Hori kontuan izanda, urtean erakusketa nagusi bat eta beste txikiago batzuk antolatzen saiatzen direla azaldu du Gomez de Aspuru.

Datorren urterako Lorenzo Fernandez de Viana (1866-1929) eskultoreari buruzko erakusketa eta ikerketa prestatzen ari dira. Lehenago, Jesus Apellanizen (1897-1969) heriotzaren 50 urteurrena aitzaki hartuta, haren lau artelan berri erakutsiko dituzte. Bestetik, duela bi urte erosi zuten Federico Madrazo (1815-1894) artistak Julian de Zulueta egin zion erretratu bat, eta horren gainean ere erakusketa bat prestatzen dabilta. "Guztiz ezezaguna den erretratua da, oso bikaina", aurreratu du adituak. Julian de Zulueta (1814-1878) beraren inguruan, zer esanik ez, asko izango dute kontatzeko erakusketan, beltz-tratularia eta Europako dirutza handienetako zuela kontuan izanda.

El Pradok utzitako gordailuak ere dituzte jauregian; hain zuzen, museo horrek maileguan utzi berri die, hilabete batez, Esteban Murilloren (1617-1682) *Escorialeko Andre Maria Sortzez Garbia* izeneko artelan garrantzitsua. "El Pradoren 200. urteurrenaren harira ekarri diguten artelan horrek arrakasta handia izan du". Gastu guztiak Madrilen kontura izan direla azpimarratu du zuzendariak. "Eskerrak. Artelan horrek duen aseguru gastua ere ezin izango genukeen ordaindu". ■■■.





Gerraren triptikoa (Aurelio Arteta)

Espainiako Gerrak Euskal Herrian izan zituen ondorioak bildu zituen Artetak, hiru narrazioen bitartez. Zerutik datorren suntsiketari begira dago lehen gudari gaztea. Erdiko panelak erbestea adierazten du. Hirugarrenak, berriz, heriotza: ama eta haren jaioberriaren hilotzak agertzen dira, galdutako abereak eta auirika ari den txakur bat.



Europako mendien paisaia (Carlos de Haes)

Ahuntzain bat azaltzen da, baina haren irudiak ez dauka garrantzirik, Europako mendietan marrazten den paisaiaren ikusgarritasunaren parean.



Carmen Arconadaren erretratua (I. Zuloaga)

Ehundurak margotzen bikaina zen Ignacio Zuloaga. Zetazko jai jantziak luxua eta detaileak erakusten ditu, paisaian erabilitako pintzelkada gogorren aldean.



"Herriarekiko arduraz betetako lana egin dugu; ederra izan da"

IZASKUN ABAIGAR ETA ANE ZELAIA 11/2013 SUMARIOAN AUZIPETUAK

Euskal preso eta iheslarien alde egindako jardunaz harro, oraindik egin beharreko lana dela nabarmendu dute Izaskun Abaigarrek eta Ane Zelaiak, Espainiako Auzitegi Nazionalen epaiketa hasteko bi hilabetera. Elkartasun olatuarekin epaitegirako bide hori egiteko beharrezko indarra hartu dutela gogoratu dute.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Erlantz Anda**.

Euskal presoen eskubideen defentsan lanean aritutako 47 lagun epaituko ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak, datorren irailaren 16tik aurrera. Osasun arloko profesionalak, abokatuak eta presoen eskubideen eragileetako kideak dira auzipetuak, eta 8 eta 21 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen ditu Fiskaltzak eurentzat, tartean Izaskun Abaigar (Kanpezu, 1986) eta Ane Zelaiarentzat (Gasteiz, 1985).

Egindako lanaren zilegitasuna nabarmendu dute, herriarekiko elkartasunez egindako lana, eta *5ak Gasteizen* dinamikari esker bueltan jasotako babes zabalarekin pozik eta eskertuta agertu dira. **Epaiketa hasteko bi hilabetera, nola zaudete?**

Ane Zelaia: Haurdunaldiak lagundu dit lur hartzen, eta oraingoari begira nago eta ez horrenbeste gero etor daitekeenari. Baina uste dut oso zirkunstantziala dela nire egoera.

Izaskun Abaigar: Bigarren fase batean nagoela esango nuke. Epaiketaren data jakin genuenean izan zen lehena. Bigarrena, berriz, hainbat herritan martxan jarritako dinamikekin etorri da; horretan gaude buru-belarri, herrietan inplikaturik, eta ez hainbeste ondorioetan pentsatzen.

Presoen eskubideen alde lanean ari zineten atxilotetak gertatu zirenean.

A. Z.: 2013ko iraila amaieran atxilotu ninduten ni, Herrirako beste 17 kiderekin batera, eta urtebete lehenago hasi zen sumario guztiaren ikerketa, ordurako Euskal Herrian egoera politiko desberdin bat zegoenean. Pertsonalki garai horretan oso inplikaturik eta oso sinetsita nengoen egiten ari ginen lan berri horretan; presoek eskubideen inguruko lanketa parte-hartzaileagoa, irekiagoa, transbertsalagoa egitea zen asmoa, eta uste dut horretan herritar pilo bat engantxatu ginela. Hori bere fruituak ematen ari zenean, herritar pilo baten esfortzu handiarekin lan polita egiten ari zenean, etorri ziren atxilotetak. Momentu hartan ez genuen espero, eta pertsonalki *shock* bat izan zen; ez zetorren bat garai hartako egoerarekin, egiten ari ginen lanarekin... Sorpresa izan zen, gure lana guztiz publikoa zelako, eta indar politiko guztiekin harreman normal bat zegoelako; adostasun gutxiago edo gehiago, guztiekin elkartu ginen.

I. A.: Nire sorpresa ere ikaragarria izan zen. Etxeraten nenbilen lanean. Ez genuen ulertzen testuinguru hartan, presoek eskubideen inguruko olatu izugarri horrekin... 2015eko martxoan

atxilotu gintuzten gu, eta bi aste lehenago Europako Parlamentuan izan ginen hainbat seniderekin batera; dispartsioren inguruko salaketa kualitatibo nahiko potentia lortu genuen, eta Europako PPK ere eman zuen horren aurkako mezu bat, esanez dispartsia ez zela bidezkoa eta amaitzeko bidean jarri behar zela. Pentsa, handik bi astera, Europatik ekarritako poztasun harekin guardia zibilak etxean agertu zirenean... Ez nuen ulertzen senideen elkartean egiten ari ginen lan publiko zilegi horri erantzuna; politikoki uler genezakeen, hori guztia zapusteko helburu politikoa.

A. Z.: Operazioa martxan jarri zuenak bultzada politiko bat izan zuela argi daukagu, eta maila batean lortu zuten ilusio egoera hori baldintzatzea.

I. A.: 'Parot doktrina' ezeztatu zuten, osasun arloko eragile ugari preso gaixoen askatasuna eskatzen ari ziren... Uste dut gaingiduta ikusi zutela euren burua, eta hori moztu behar zuten.

Nola interpretatzen dituzue zigor eskaerak?

A. Z.: "Dena ETA da" tesiaren jarraipena dira guri leporatzen dizkiguten delituak. Tesi hori lekuz kanpo egon da beti, baina egia da gaur egun are ulergaitzagoa dela. Herrirako kideei finantziazioa, terrorismoa goratzea eta erakunde terroristako kide izatea egozten digute... erakunde armatuak su etena iragarri eta urtebete beranduago hasita ikerketa poliziala. Gu norbaiten agindupean baldin bageunden, gehiengo sozialak agintzen zuen horren mende geunden; preso eta iheslarien afera termino berri batzuetara eta konponbide baldintzetara eramateko lanean. Eskaerena surrealista da. Argazki horixka batean kokatu nahi dute gure herria, eta Euskal Herria beste fase batean dago.

I. A.: Audientziak dauka aginte makila. Gure kasuan 6 eta 12 urte arteko eskaerak egin zitezkeen ETako kide izatea egotzita, eta 11 eskatu dituzte. Baina non justifikatzen da hori? Hori sumarioan ez dago argudiatuta. Badago asmoa gu beldurtzeko, Euskal Herria geldiarazteko, eta *kontuz!* hemen delitu grabeak egon daitezkeela aditzera emateko. Giza eskubideen aldeko defentsan eta elkartasunean, senideen hitza leku guztietara eramateagatik terrorismoa leporatzen digute? Senideek eurek beste makilkada bat bezala hartu dute.

Zubiak eraikitzeke beharra nabarmentzen da gaur egun. Zuen auzian nabari duzue alde bateko eta besteko elkarlana?



Irailaren 14rako manifestazio nazionala deitu dute Bilbon; argazkian, joan den astean egindako agerraldia.

bertan Landako urtegian eta abuztuan Gasteizko jaietan, esaterako. Eta epaiketa hasi aurretik manifestazioa izango da Bilbon, irailaren 14an.

I. A.: Manifestazio horren helburua da gu ahalik eta indartuen eta babestuen joatea Madrilera, hiru hilabeteko epaiketari aurre egiteko.

A. Z.: Ez dakit jendeak badakien zer suposatzen duen hiru hilabetez bizitza epaiketaren arabera antolatzea; hiru egun Madrilan, hurrengoak ez, gero astebete...

I. A.: Nik hezkuntzan egiten dut lan, eta honek zailtasunak ekarriko ditu ikasleen ikaste prozesuan... Eta sozialki suposatzen duen estigmari ere aurre egin beharko diogu, eta horretarako ere indartsu egon behar dugu.

A. Z.: Oso gutxitan aipatzen da estigma, eta azpimarratu behar dela uste dut. Auzokide batzuei izan dut dena zerotik azaltzeko beharra,

testuingurua falta zutelako eta nire aurpegia 14 urteko espetxe zigorraren ondoan ikusitakoan ikaratuko direlako. Ez da erraza...

Espetxealdia burutik pasatzen zaizue?

A. Z.: Aukera moduan ikusten dut bai, aukera guztiak zabalik. Egia da azkeneko makroepaiketa hauek akordioekin amaitu dituztela, baina Altsasukoak ere espetxean daudela pentsatzen dut, eta katalanek nolako babesa duten nazioartean eta espetxean daudela... Ez nau blokeatzen pentsamendu horrek, baina ez naiz fidatzen.

I. A.: 47 lagun gaude auzipetuta, bakoitza bere etxekoa eta bere motxilarekin, eta badira espetxean egon direnak ere... pentsa nolako mamua pizten den horientzat, baina baita egon ez garenontzat ere. Noski, oso presente daukagu. Nork daki, ez dugu gure zelaian jokutzen. ■



Zaharrean



IÑAKI LAZKANO
EUSKARA TEKNIKARIA

Hiri guztiek dute beren bihotza, beren arima gordetzen duten kale estu eta meharrek. Batzuetan aldapan gora, besteetan behera, gutxitan leku lauan.

Euskal Herrietako Alde Zaharretan goikokaleak, go(i)enkaleak edo goikuriak; erdikokaleak nahiz artekaleak, eta beheraxeago barrenkaleak, edo Bilboren kasuan bezala "barrenkale barrenak" ere: beheko kalearen barrenean, behealdean, dagoena, alegia.

Eta hauetan guztietan, "Zaharrean" gora eta behera, sortu dira mendez mende eta urterik urte hainbat ekimen politiko, sozial eta kultural. Herri edo hiriei beren izaera osatzen lagundu dieten proiektu berritzaileak. Alde Zahar horietan mamitu dira maiz herriak hobetzeko proposamenak, hausnartu dira sarri hiriak eraldatzeko egitasmoak eta antolatu dira usu herrialdeak iraultzeko matxinadak.

Zaharrean gustura ibil zitekeen pasa den asteetako egun kiskalgarrietan gerizpea aurki baitzitekeen alde batean edo bestean, mendebaldean ala ekialdean. Eta Gasteizko Alde Zaharrean harro ibili ziren aste osoan zehar ume zein nagusi, gazte eta zahar, jolas, kontzertu, antzezlan, ibilbide, filma eta jai artean. Zaharrean pozik, festak antolatzeko beste modu batez harro.

Festak amaitu ziren, bai, baina festa gogoak iraun egin zuen beste astebetez ere, eta kaleei tabernek hartu zieten erreleboa: Jazzaharrean musika jaialdiaren txanda izan zen. Astearte batean hasi zuen Petti handiak blues doinu ederrekin, eta ondoren Gurutze's Manouches taldeak hartu zion lekukoa, aurreko egunean bezala Frantzisko Xabier deunaren zeharkalean. Izan ere, kale batetik bestera igarotzeko zeharkaleak asmatu baitzituzten behialako euskaldunek; kale bat bestearekin lotuz, hiri zaharrrari arnas eman nahian.

Gertaera ugari jazotzen dira Zaharrean, eta uda amaitu aurretik ere izango dira beste hainbat ekimen kultural, sozial eta politiko gertutik jarraitzeko modukoak Errementari, Zapatari nahiz Hedegile kaleetan ez bada, Aitzogile, Pintore edo Barrenkaleetan...zaharrek beti berri! ■■■

**ALDE ZAHAR HORIETAN
MAMITU DIRA MAIZ
HERRIAK HOBETU ETA
ERALDATZEKO
PROPOSAMENAK**

Uztailaren 20an Euskal Sagardo ARABA Gasteizen!



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




9F Arriaga, 2 | Arriaga
T: 945 44 53 85 | 685 72 15 93
i.iturrieta@yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



Txooooo!x!




Kuartango
SAGARDOTEGIA

TREBIÑU
Sagardotegia
945 248 852-887 730 590 - ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
1.699 747 730 - 945 362 683



Arabak,
arabako sagardoa!

SAREAN

@ANAMENABAR

#Flipatu

Euskaltzaindiaren Hiztegiari azkeneko eguneraketa egin diote, eta 312 sarrera berri gehitu dizkiote eta beste hainbat zuzendu. Modu informalean erabili diren hainbat hitz, edota beste hizkuntza batzuetatik eratorritako hainbat jaso dituzte, "momentuko errealitatearen isla". Besteak beste, "friki", "flipatu", "guateke", "kubata", "intersexual", "diva", "curry", "papergabe" edota "intersexual" hitzak gehitu dituzte. ■■■



**GORKA
BEREZIARTUA**
@gorka_bm

Hemendik aurrera norbaiti flipatu bat dela esan ahalko diozu Euskaltzaindiaren berme guztiekin.



**JULEN
TELLERIA**
@julentelle

Eta guateke batera joan. Hau oso beharrezkoa zen #2019



**ENEKO
IRAIZOTZ**
@iraitxotx

Flipatzen ari naiz halako gauza frikiak kontuan hartzen direla ikustea... Banoa zurito bat eskatzera...



GORETTI
@lixarre

Friki izango naiz, baina zurito sartzeak flipatu nau.



**ENEKO
AIZPURUA**
@eneko aizpurua

Azkenean lortu dut Euskaltzaindiaren bedeinkapena hurrengo kontakizunaren izenbururako: "Friki flipatu komantxe eta intersexual baten gau ibiliak".



**GOIZALDE
LANDABASO**
@GoizaldeL

Harrigarria... Euskaltzaindiak ez du orain arte zurito hitza onartu izan...

 IRUDITAN



Mina eta amorrua, prekarietateagatik

Pasa den uztailaren 5ean Laudioko herriko plaza bete zuten herritarrek eta Tubacex enpresako langileek, aurreko egunean gertatutako lan istripua salatzeko; 25 urteko langile bat hil zen pieza bat buru gainera erorita. Gaztea "prekarietatearen ondorioz" hil zela salatu zuten langile batzordeko ordezkariak lantegitik plazara arte egindako manifestazioan, enpresan dagoen "arrisku handia" azpimarratu, eta "neurri eraginkorrak" eskatu zituzten. Laudiokoaz gain, lan istripua arbuiatzeko bestelako mobilizazioak ere egin dira egun hauetan eskualdean.

Argazkia: Aiaraldea.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Eskola-segregazioari aurre egiteko neurrien falta salatu dute aspaldi Gasteizko hainbat eragilek. ALEA

Erakarri baino, uxatu dituzte

Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma, Samaniego eskolako hainbat irakasle eta Elkarrekin Gasteiz oso kritiko agertu dira Udalak eta Jaurilaritzak sustatu nahi duten Magnet Erakarri planarekin.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE GASTEIZ

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza saila eta Gasteizko Udala datorren ikasturterako diseinatzen ari diren ekintzen artean, Magnet-Erakarri programa dago. Gorka Urtaran alkateak esan duenez, horren eta beste hainbat neurriren bitartez, "bizikidetza eta hezkuntza-ekitate" sustatu nahi dute hiriko ikas-tetxeetan. Edo beste hitz batzue-

kin esanda, eskola-segregazioari aurre egin nahi diote. Bada, hila-ren hasieran egin dute erakundeek Ekitatearen Aldeko Ekintza Planaren aurkezpen ofiziala, eta aste honetan jaso dute hezkuntzaren alorreko hainbat eragileren aldetik eta oposizioko Elkarrekin Gasteiz alderditik lehen kritikak.

Hezkuntza komunitatearekin "kontatu gabe" egin dutela lepo-

ratu diete erakunde publikoei, eta segregazioaren arazoari aurre egiteko neurri zehatzik ez dutela jarri mahai gainean. Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformaren esanetan, "beste behin ere, diagnostiko okerre-tik abiatzen da, martxoan aurkeztu zuten protokolo baten sinadura antzetzuz, funtsezkoena eta sakoneko apustu politikoetan ezer aldatu ez dadin".

Prestigioa emateko helburua

AEBetako *Magnet Schools* esperimentzian eta Kataluniako Magnet programa ditu oinarri Jaurilaritzaren eta Udalaren asmoak. 1970. hamarkadan, familia zuriak gehiago beltza zuten eskoletan umeak matrikulatzen animatzeko martxan jarri zuten Magnet programa AEBetan. Gerora zabaldu zen Kataluniara, 2013. urtean, Jaume Bofill Fundazioak bultzatuta, bereizgarri propioekin.

Ardatz nagusia eskolen eta ospe handiko ikerketa guneen edo kultura guneen aliantzak sustatzea da, eskola horiei prestigioa emateko. Kataluniako Generalitateak eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak Bofill Fundazioarekin batera bultzatzen dute.

Gasteizen, berriz, eredu hori kopiatu eta hainbat ikastetxetan ezarri nahi dute. "Ekintza horren bidez, proiektu berriaren xedea da ikasleen ikasketa-arrakastari laguntzeaz ez ezik profil heterogeneoa duten auzoko familien interesa ere erakartzea, eta ikastetxe horietako gizarte-konposizioa orekatzea".

Samaniegoko esperientzia

Oso ezkor hitz egin dute, ordea, Samaniegoko hainbat irakasle Magnet egitasmoaren harira. Gutun batean azaldu dutenez, ikasturtearen hasieran, segregazio maila handia duen ikastetxe horretan programa ezartzeko proposatu zien Hezkuntza sailak. "Hasiera batean ilusio handiz hartu genuen proposamena", idatzi dute irakasleek, baina azkenean klaustroaren gehiengoak proposamena baztertu zuen eta proiektu propioa garatzea erabaki zuten.

Azaldu dutenez, Hezkuntza sailak ez zituen "gutxieneko baliabideak" eskaintzen programa aurrera eramateko. Halaber, auzian jarri dute Magnet programaren filosofia bera: "Hezkuntza sailak garatu nahi duen programak segregatutako eskoletan jartzen du fokua, eta aditzera ematen du irakasleen lan dinamikaren aldatetari esker, kostu txikiarekin eta gutxieneko baliabiderik gabe etorriko dela aldaketa. Horrela gertatzen ez bada, ikastetxearen ardura da. Estrategia honek badu izena: biktima errudun bihurtu".



Gorka Urtaranek eta Cristina Uriartek aurkeztu dute ekitatearen aldeko plana. GASTEIZKO UDALA

"EZ DA KONTSULTATU ETA KOORDINATU KOMUNITATEAREKIN"

EUSKAL ESKOLAREN ALDE PLATAFORMA

"MAGNET FILOSOFIAK BIKTIMA ERRUDUN BIHURTZEN DU"

SAMANIEGOKO IRAKASLEAK

"HEZKUNTZA-EKITATEA DA PROGRAMAREN HELBURUA"

GORKA URTARAN, GASTEIZKO ALKATEA

Gutuna publiko egin duten Samaniegoko irakasleen esanetan, Eusko Jaurlaritzak "eskola-segregazioari aurre egiteko neurriak abian jarri beharrean, ardurak saihestu nahi ditu, egungo hezkuntza eredu dual publiko-pri-

batuak eragiten dituen arazoei aurre egin gabe".

Zentzu kritiko berean, Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak nabarmendu du protokolo hori eta Hezkuntza sailaren aurreko ekimenak ez direla koordinatu, ezta kontsultatu ere, eskola-segregazioaren aurka borrokatzen duen hezkuntza eta gizarte komunitatearekin. Gainera, bitxia deritzo Udalak eta Hezkuntza sailak aurkeztutako programan "segregazio hitza inon ez topatzea".

Udal oposizioko Elkarrekin Gasteiz taldeak ere arbuiatu du Ekitatearen Aldeko Plana, eta "makillajea" dela esan du Gemma Zubiaurre zinegotziak. "Ez da hitz egin alde sozialarekin ez sindikalararekin plan horretan lan egiteko. Gainera, ez dago ekintza zehatzik eta ez diote erreparatzen Gasteizen dagoen eskola-segregazioaren arazoaren jatorriari". Zubiaurrek gogoratu du lantalde bat sortu zutela Udalean gaia jorratzeko eta neurriak adostu zirela, "baina ez dira martxan jarri".



Merchan sozialista, eskuinean, eta Añibarro Laudioko alkatea, ezkerrean. AIARALDEA

Osatu dira EAJ-PSE gobernuak

Euskal Autonomia Erkidegoan EAJk eta PSEk duten akordio zabala Arabako instituzio nagusietara eraman dute; Laudion, Gasteizen eta Aldundian programak eta gobernuak aurkeztu dituzte egun hauetan.

ERREDAKZIOA ARABA

EAJk eta PSEk gobernu programak eta taldeak aurkeztu dituzte Arabako Foru Aldundian, Gasteizko Udalean eta Laudioko Udalean, besteak beste. Egun hauetan izan dira hurrengo lau urteetako programa politikoen aurkezpenak eta protokolo-ekitaldiak; horietan islatu da Euskal Autonomia Erkidegoan jeltzaleek eta sozialistek dituzten akordioak zabalak eta mugagabekoak direla, bederen lurraldeari dagokionez.

"Konfiantza" eta "batzeko helburua" aipatu dituzte Gorka Urtaran Gasteizko alkateak eta Ramiro Gonzalez diputatu nagusiak PSerekin duten aliantza justifi-

katzeko. Biek ala biek aipatu dute, halaber, akordioa "irekia" dela, eta beste talde politikoei ohartarazi diete baldintza bakarra "batzea" dela. Ildo horretatik, Laudioko alkate berriak, Ander Añibarrok, azpimarratu du negoziatziorako prest egongo dela, nahiz eta azken asteetan elkarrizketa PSerekin zentratu den, "akordioa erdietsi behar baikenuen".

Iragan asteko ostiralean aurkeztu zuten akordioa EAJk eta PSEk, Laudioko udalbatzaren ostean. Jeltzale eta sozialistek eskuratu duten gehiengoarekin herriak aurrera egitea espero dute eta hainbat erronka nabarmendu dituzte: Antzokia eratzea, arazte-

giak eraikitzea, udal liburutegi berria irekitzea eta indarkeria matxistatik gabeko herria sortzea tartean.

Bost diputatu berri

Uztailaren 5ean, ostiralean, egin zuten Arabako Foru Aldundian duten programaren aurkezpena diputatu nagusiak, Jose Antonio Lopez de Suso ABBko lehendakariak eta PSEko Cristina Gonzalezek. Helburu nagusitzat aipatu dituzte hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzea kalitatezko enpleguarekin batera, gizarte kohesioa eta Araba lurralde bizia izatea. Foru gobernuari dagokionez, azpimarratu dute gobernu parekidea izango dela; EAJk sei sail kudeatuko ditu, eta PSEk hiru arloren ardura izango du. Itziar Gonzalo jeltzalea Ogasun eta Finantza sailean, Javier Hurtado sozialista Bide Azpiegiturak eta Mugikortasunean, Emilio Sola jeltzalea Gizarte Politiken sailean, Irma Basterra jeltzalea Lurralde Orekan eta Ana del Val sozialista Kultura eta Kirola sailean izango dira diputatu berriak.

Gasteizko Udalerako programa, berriz, astelehenean aurkeztu zuten. Egitasmo handien artean, honakoak nabarmendu dituzte: Gasteiz Convention Bureau sustatzea, Kultura Plan Estrategikoa garatzea, auditoriuma eraikitzea, Principalantzokia eraberritzea, Iradier Arena hobetzea, Mendizorrotzeko estadio berria eraikitzea, kirol instalazioak berritzeko plana eta ohitura osasungarriak.

Jeltzaleek, alkatetzaz gain, Kirola, Ogasuna, Giza baliabideak, Lurraldea eta Klimaren aldeko ekintza eta Mugikortasuna izango dituzte. Sozialisten esku, Gizarte politikak, Sustapen ekonomikoa, Hiri segurtasuna, Hezkuntza eta Kultura, Administrazioa eta Parte-hartzea.

GEU TXOSNA

ABUZTUAK 2 - AIHOTZ-TXOTX

18:00 IPUIN KONTALARIAK

Aitor M. Vinagret + Nerea Ariznabarreta

19:30 GEUre saria

20:00 DANTZA PLAZAN **Azido Folkloriko**

ABUZTUAK 3 - MUSIKAIHOTZ

19:00 Orbanak

20:30 Konpost

22:00 **Izaki Gardenak**

laguntzaileak:



Agintaririk
du: Aitor M. Vinagret
Nerea Ariznabarreta

babesleak:

LABORAL
Kutxa

antolatzailea:

geu
Euzko Legebiltzaria

ESANAK



IÑIGO RUIZ DE GORDEJUELA
PIANOJOLEA ETA MUSIKAGILEA

"Musikari bikainak ditugu gurean, eta urte osoko eskaintza merezi dute, jaialdiez harago"



FITO RODRIGUEZ
IDAZLEA ETA EHUKO IRAKASLEA

"Informazioan oinarritutako boterearen hegemonia krisian dago"




MADE URIETA
ARASIKO ENTRENATZAILEA

"Egoera aldatu da, eta prestatutakoentzat daude aukerak; izan gizon ala emakume"

ZENBAKITAN


Jarduerak

Gasteizko jaietako egitaraua aurkeztu dute aste honetan. Kepa Sojo zine-zuzendariak emango du pregoia, abuztuaren 2an, 21:30ean. Jaietako programazioaren aurrekontuak ia 60.000 euro egin du gora eta, berrikuntzen artean, jaien aurretik Foru plazan egingo den DJ kontzertua nabarmendu du Udalak. Halaber, azpimarratu dituzte Foru plazako ohiko kontzertuak (Huntza, La M.O.D.A., Fangoria, Gatillazo eta Mago de Oz) edo Aihotz plazako euskarazko eskaintza (Joseba Tapia, Modus Operandi, Nogen eta Anje Duhalde). Umore Txokoa Fernandez de Pierola Apezpikuaren plazan izango da aurtien ere.



Milioiak

Abiadura Handiko Trenak
Gasteizen izango duen tartearen txosten informatiboa argitaratu du Espainiako jarduneko Gobernuak, eta 872 milioi euroko aurrekontua izango duela jakinarazi du, aurreikusitakoa baino 150 milioi gehiago. Gasteizko alkate Gorka Urtearanekez agertu du aurrekontu handitzearekin. "Kezkatuta nago erabaki honekin, ez dakit zergatik egon den aldaketa hori urtarritetik uztailetera, eta arrazoiak jakin nahi ditugu", adierazi du.



Oheak

Osakidetzak aurtengo udan Araban 150 ohe itxiko dituela salatu du SATSE sindikatuak, eta EAEko ospitaletan ia 1.000 ohe itxiko direla ohartarazi du. "Oheak eta zerbitzuak itxeaz gain, erizainak eta fisioterapeutak ez dira modu egokian ordezkatuko", azaldu du sindikatuak. Gainera, LABek lehen arretako osasun zentroetan ordutegi murrizketak salatu ditu. Osakidetzako arduradunek, ordea, murrizketak ukatu dituzte eta zerbitzua bermatuko dela ziurtatu dute.

Auzitegi Nagusiak Samaniegoko alkatetza berretsi du

Samaniegoko alkatetza EH Bilduko Pilar Garmendiaren eskuetan geratuko da. EAJk eta PSEk hautaketa inpugnatu zuten boto-txartel batean Garmendiaren izenaren ordeztu EH Bildu idatzita zegoelako. Halere, EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du erreklamazioa, eta berretsi du Garmendiak jarraitu behar duela karguan Arabako Errioxako herri horretan.



Pilar Garmendia, Samaniegoko alkatea, EH Bilduko bi zinegotziekin batera. EH BILDU



La Basu izango da Ibaiudan. SOFRAN18

Ibaiuda jaialdia ospatuko dute asteburu honetan

Antzerkia eta musika uztartzen duen Ibaiuda jaialdiaren seigarren edizioa ospatuko dute Berantevillan larunbatean. 13:00etan hasiko dira emanaldiak, Lean de la Torre zirkuekin, eta ondoren, La Basuk rap tailerra egingo du. Zarini zirkoa eta Ola Muchin taldeen ikuskizunak izango dira gero. Blue-ro Ones, The Song, eta EH Mertxe taldeek jarriko dute musika.

Gaztetxea sortzeko eraikin bat okupatu dute Villabuenan

La Caixak orain dela bost urte hutsik zuen eraikina okupatu dute Villabuenan herrian, eta gaztetxea bertan martxan jartzeko asmoa agertu dute herriko gazteek. Azaldu dutenez, "espazio feminista, antirrazista, antihomofobo eta antifaxista" izango da gaztetxea. Uztailaren 19an, Gaztetxearen inaugurazioa egiteko jaialdi bat antolatu dute.

Greba bertan behera utzi dute Valvospain-Ituarteke langileek

Aste honetan itzuli dira Valvospain-Ituarteke langileak lanera, greban hilabete bat baino gehiago eman ondoren. Maiatzaren 30ean gelditu zituzten fabrikako makinak, zuzendaritzak ezarri nahi zituen kaleratzeen eta soldata atzerapenen aurka. Lantegia guztiz ixtea zen enpresaren jabeek plazaratu zuten azken asmoa, baina, egoera hobetu dela dirudi.



Elkarretaratze ugari egin dituzte Valvospain-Ituarteke langileek ekainean. AIARALDEA.EUS

Sormena lantzeko egunak

Asteartean, hilak 16, hasiko da Zineleku egitasmoaren laugarren edizioa; programa zabal baten bitartez, ikus-entzunezko profesionalen lana ezagutu eta ekoizteko aukera izango dute parte-hartzaile gazteek.

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Hamabi egunez egongo dira Euskal Herri osotik iritsitako 18 eta 29 urte bitarteko gazteak Zineleku programan parte hartzen; hilaren 16an emango diote hasiera prestakuntza eta sorkuntza helburu duen proiektuari, eta uztailaren 27ra arte, zinema tailerrak, zinemagintzako edo beste arlo batzuetako profesionalen saioak, proiektzioak, performanceak eta kontzertuak izango dituzte Gasteizen.

Egitarau zabala prestatu dute Alde Zaharreko Santa Maria aterpean elkarrekin biziko diren gazteentzat. Zineman zein bestelako jardueratan ibilbidea duten profesionalek askotariko eskolak eskainiko dituzte, eta saioak amaitzean, hainbat

jarduera izango dituzte, hala nola, zinema edo literaturari buruzko solasaldiak, ikus-entzunezkoak, proiektzioak edo kontzertuak.

Askotariko irakasleak

Eskolei dagokionez, Oskar Alegriak, adibidez, generoaren dislokazioei buruz jardungo du; Maider Oleagak, gorputzetik idazteaz; Sra. Polaroiskak, eszenaratzeko lehen zirriborroez; eta Musergok (Maite Arroita Jauregi), gorputza eta soinuez. Garbiñe Ortega, Txubio Fernandez de Jauregi, Xabier Erkizia, Arantza Santesteban eta Idoia Zabaleta izango dira, besteak beste, parte hartuko duten beste profesional batzuk.

Horiez gain, lehen egunean, Eugenio Mira zuzendariarekin

hitz egiteko aukera izango dute partaideek, Baratza aretoan; uztailaren 17an, berriz, Nahikari Ipiña aurrekontu handiko nazioarteko zein tokiko filmen produkzioek suposatzen duten erronkari buruz arituko da. Hilaren 20an, entzute kolektibo saioa dute Alfredo Costa Monteiroren eskutik, Artiumen; eta igandean, Marina Azahuak kamera biolentziarako tresna bezala erabili izanaren inguruko hausnarketa proposatuko du, Zas kultura gunean. Uztailaren 24an, berriz, kale ekintza izango dute Zinelekuko artistek eta ikasleek elkarlanean.

Proiektuari buruz honakoa azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek: "Helburua da diziplina arteko prestakuntza ematea ikus-entzunezko sortzaile berriei, ikuspuntu komunitariotik". Tailerrak ikus-entzunezkoen arloan unibertsitatean ematen diren edukiak osatzeko daude pentsatuta; hori horrela, parte-hartzaile tailerretan parte hartuko dute lehen zortzi egunetan, eta gainerakoetan, partaide bakoitzak praktika mota bat garatzeko aukera izango du.

Uztailaren 26ko amaierako jaian, ikasleen eta artisten elkarlanaren ondoriozko lan esperimental eta diziplinarako proiektuen aurkezpena egingo dute. ■■■



Pasa den urteko Zinelekun ateratako irudia. ZINELEKU

Gasteizko Jazzaldia, ate joka

Astelehenetik larunbatera bitartean izango da musika jaialdia; Mendizorrotza eta Principal antzokiko ohiko agertokiei, aurtengo edizioan Falerina lorategia gehitu zaie, Montehermoso kulturunean.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Hastear da Gasteizko udako hitzordu ospetsuenetariko bat. Benny Golzon 90 urteko saxofoi-jotzaile beteranoak Jazzaldiaren 23. edizioari hasiera emango dio astelehenean, uztailaren 15ean, Principal antzokian.

Berrikuntzekin dator aurtengo egitaraua; nabarmenena Mendizorrotza eta Principal antzokiko ohiko agertokiei, aurtengo Falerina lorategia ere bilduko zaiela, Montehermoso kulturunean. Doako

kontzertuak eskainiko dituzte eguerdietan eta musika eskoletako ikasleentzat zein beren ibilbide profesionalari ekin dioten beste talentu gazte batzuentzako lekua izango du. Andres Isasi Jazz Quintet-ez gain, Luis Aranburu eskolak, Jesus Guridi kontserbatorioak, Musikene eta Udaband musika kanpusak euren konboak aurkeztuko dituzte. The Taan Trio talde italiarra, Andres Barrios piano jotzaile sevillarra, Romain Pilon gitarra jotzaile frantziarra bere Reunion 5et taldearekin, The Breitners eta

Trizak taldeak osatuko dute Farelino programazioa.

Mendizorrotzean, esanguratsuenak

Mendizorrotzako kiroldegia hartuko ditu ostera ere musika emanaldi esanguratsuenak. Hilaren 16an, ohiko gospel kontzertua eskainiko du Golden Gate Quartet taldeak. Hurrengo egunean, berriz, Marco Mezquida pianista kataluniarraren inguruan sortutako MAP hirukotea eta Gasteizko Udal Banda elkarrekin ariko dira; eta jarraian, Danilo Perezek, Avishai Cohenek, Larry Grenadierrek, Chris Potterrek eta Jonathan Blakek osatutako boskoteak joko du. Ostegunean, Gregory Porter kantaria eta Regina Carter biolinista izango dira.

Ostiralean, Kubako jazzaren dama nagusi Omara Portuondo igoko da agertokira; Roberto Fonseca piano jolea izango da harekin; eta horren ostean, Jorge Drexler uruguaitarra iritsiko da. Azken egunean, Makaya McCraven konposatzaileak eta bateria-joleak zein Kamasi Washington saxofonistak joko dute.

Ohikoa den moduan, Principal antzokiak ere kontzertuak hartuko ditu, hilaren 20ra arte: zehazki, Marco Mezquida, Nubya Garcia, Marta Sanchez Quintet, Iñigo Ruiz de Gordejuela eta Ambrose Akinmusire. ■



Benny Golzon saxofoi-jotzaile beteranoak irekiko du egitaraua, astelehenean. JAZZALDIA

"Gure sagardoak etorkizuna du, baina lan asko dago egiteko"

UNAI AGIRRE EUSKAL SAGARDOA JATORRI DEITURAREN KOORDINATZAILEA

MIRIAN BITERI

Hiru urte bete ditu Euskal Sagardoa jatorri deiturak. Lehen urteotan, Euskal Sagardoa herriz herriz ibili da, baina bereziki hiriburuetan ezagutaraztea izan da egiteko nagusienetakoa bat; datorren astean, Gasteizen izango dira aurreneko sagardogileak.

Uztailaren 20rako Euskal Sagardoa Araba jaialdia antolatu duzue.

Zergatik Gasteizen?

Gasteiz oso garrantzitsua da guretzako. Batetik, sagardo kontsumoa dagoen lekua delako; eta, bestetik, Araban zerbait egitekotan ezinbestekoa delako Gasteiztik hasia. Euskal Sagardoaren atzean zer dagoen erakutsi nahi diegu gasteiztar eta arabar guztiei.

Zein da egitasmo horren helburua?

Euskal Sagardoa jatorri deituraren atzean dagoen lana, filosofia, kalitatea eta abar zabaltzea. Bertako sagar hutsez egindako kalitatezko sagardoa da, eta jendeak hori apreziatzen jakitea eta horretarako zein lan egiten den jakitea ezinbestekoa da guretzat. Hori da helburu nagusia.



Jatorri deiturako eledun Unai Agirre. U.A

Zein da hilaren 20ko plana?

Goizean eta arratsaldean egongo gara Aihotz plazan. Inguratzen denak sagardo desberdinak izango ditu aukeran, eta dastatu ahal izateko kopa eta 5 tiket hartu ahal izango ditu 5 euroan. Sagardogileak izango dira postuetan sagardoa zerbitzatzeko, eta beren sagardoari buruzko azalpen guztiak emango dizkiote jendeari. Baina bertan egongo diren sagardoak dastatzeaz gain, dastatze gidatuak ere izango dira; neroni eta Mikel Garaizabal enologo-sumillerra bertan

izango gara dastatze azkarrek gidatzen, eta sagardoaren ezagugarriak azaltzeaz gain, jendearen galdera eta zalantzak argitzen saiatuko gara. Horrez gain, kontzertuak, pintxoak eta abar ere izango dira.

Zortzi sagardotegitako sagardoak dastatu ahal izango dira. Horietatik hiru arabarrak dira, ezta?

Bai, hiru arabarrak eta bost gipuzkoarrak. Jatorri deiturak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardogileak biltzen ditu, eta hori ere eman nahi dugu ezagutzera Gasteizen; elkarlaneko proiektu bat dela. Gipuzkoatik Altzueta, Akarregi, Itxasburu, Lizeaga eta Zelaia sagardotegiak etorriko dira, eta Arabatik Iturrieta, Kuartango eta Trebiñu. Egia da, arabarretan Kuartangok ekarriko duela jatorri deiturako sagardoa, Trebiñuk traba administrati- boengatik eta Iturrietak 2018ko uztia txikiagatik ezin izan zutelako jatorri deiturako sagardorik egin azken uztan.

Zeintzuk dira Euskal Sagardoaren ezaugarri nagusiak?

Bi ardatz nagusi ditu: bertako sagarra eta kalitatea. Euskal Sagardoak Euskadiko 115 sagar



Jatorriko deiturak Euskadiko 115 sagar mota ezberdin ditu onartuta. MIRIAN BITERI

mota ditu onartuak eta horrez gain, sagardoaren kalitatea bermatzeko baldintza zorrotzak zehaztu ditu, bai sagastirako eta bai sagardotegirako. Bertako sagardoarentzat etorkizun oparo bat nahi badugu, ezinbestekoa da bi ardatz horietan lan egiten jarraitzea, eta noski jendeari horren berri ematea. Jatorri deiturako sagardoek kapsula gorria edo lepoko sagar gorria daramate, eta hori da kontrol eta prozesu guzti hori bete dutela dioen zigilua.

Gipuzkoako sagardoarekin alderatuta, badu berezitasunik Arabakoak? Klimak, esaterako, zerikusia izango du...

Jatorri deitura beraren azpian daude Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagardoak eta beraz antzekotasun handi bat badute. Baina egia da jatorri deitura sortu zenean, sagardoetan geneukan abaniko zabala errespetatu nahi izan zela eta helburu horrekin onartu ziren Euskadiko 115 sagar mota desberdin, hemen bakarrik daudenak eta ekoizten direnak. Sagar horien artean badira Araban bakarrik daudenak eta noski klimak ere zeresan handia

"EUSKAL SAGARDOA ARABAN JAIAN ZORTZI SAGARDETEGI IZANGO DIRA; HORIETAKO HIRU ARABARRAK DIRA"

du sagardoaren ezaugarrietan. Baina Araba ere desberdina da punta batetik bestera, sagardotegi bakoitzak dauka bere ukitua... ez nintzateke ausartuko Arabako Sagardoei ezaugarri bakar bat jartzen, eta Euskal Sagardoei aldiz bai. Izaera eta gorputz handiko sagardoak dira normalean, usaintsuak eta txinparta ederrekoak. Hori da Euskal Sagardoa bereizten duena, nahiz eta uzta bakoitzak eta sagardotegi bakoitzak bere ukitua eman.

Nola doa aurtengo uzta?

Oraindik sagastietan dago, eta ezin da datu gehiegirik eman. Orokorrean izugarrizko uzta dator, sagar asko dago sagastietan. Araban arazoren bat izan da izotzarekin, eta leku horietan uzta txikiagoa izango da, baina gainerakoan uzta handia dator.

Aihotz plazan probatu ahal izango dena, baina, iazkoa izango da...

Hala da. Izaera handikoa da iazkoa, koloretsua eta usaintsua. Uzta konplikatua izan zen kopuruan, sagar gutxi izan baitzen leku gehienetan, baina emaitza oso ona eman du kalitatean.

Zeintzuk dira esku artean dituzuen erronkak?

Erronka asko ditugu. Horietako nagusiak dira sagasti berriak sortu eta bertako sagar ekoizpena handitzea. Gaur egun, 50 sagardotegik egiten dute Euskal Sagardoa eta 234 sagargile ari dira jatorri deiturarako sagarra egiten. Datu interesgarriak dira baina handitzen jarraitzeko asmoa dugu. Eta horretarako ezinbestekoa da gure merkatuetan lan guzti hau ezagutzera ematea ere; hortik dator I. Euskal Sagardo Araba antolatzearen ideia. Baina bestelako erronkak ere baditugu epe ertainera: dibertsifikazioan lan egitea, inbestigazioa bultzatzea eta abar luze bat. Gure sagardoak etorkizun oparoa du, baina lan asko dago egiteko. ■

Bikini operazioa

NUTRIZIOA



NAGORE ENCISO

NUTRIZIONISTA

Gure klasean, lehenengo kurtsuan behintzat, hogeita hamar pertsona ginen. Horietatik, hogeita zazpi emakumeak* ginen; hiru, berriz, gizonak. Nutrizioan eta dietetikan diharduten pertsonen %80 baino gehiago emakumeak* dira. Orain zuen txanda: Nutrizioan zenbat aditu ezagutzen dituzue? Elikadurari buruzko zenbat liburu ezagutzen dituzue? Eta horietatik, zenbatek daramate emakumeen* sinadura? Eta irratian hitz egiten dutenak? Edota telebistan agertzen direnak? Hitzaldietan? ...

Nazkatuta nago. Haserre ere. Historikoki emakumeok* izan bagara elikaduran eta alkimietan jantziak, beste behin ere, gizonezkoek daukate hitza. Are gehiago esango nuke, emakumeei* hitz egiteko deitzen badigute, normalki, estetikari lotutako kontuengatik izaten da. Edo sukaldari txistezale baten ondoan agertzeko. Edo mediku, gizona noski, baten ondoan agertzeko.

Emakumeok* ere zientzialariak gara, ez dugu



PIXABAY

gainbegiratzerik behar. Eta batzuek ez diegu zuen estereotipo sexistei kasu egin nahi. Ez dugu argal egon nahi, ez, zuek gaixotzen gaituzue.

**EZ DIEGU ZUEN
ESTEREOTIPO SEXISTEI
KASU EGIN NAHI;
GARENA IZAN NAHI
DUGU, EZ BESTE EZER**

Garena izan nahi dugu, ez beste ezer.

Horregatik, uda dela-eta, ez dut argaltzeko dietei buruz hitz egingo. Ez dut ditxosozko "paleodietari" buruz hitz egin nahi (norbaitek berriz honi buruz galdetzen badit, burua lehertuko zait).

Laktosa eta gluten mordoa jango dut gozatuko ditudan izozkiekin; eta behar bada hauekin gizenduko naiz, baina ez hauek daukaten laktosa eta glutenagatik, ez, kaloria, azukre eta gantzengatik baizik, demontre! Sentitzen dut baina ez, horrelako dietak nahi badituzue sasi-aldizkari sentesazionalistetara jo. Karbohidratorik ez jan eta gaixotu zaitezte. Eror zaitezte berriz ere haien tranpan. Besteok bitartean libre biziko gara.

Eta, azkenik, hurrengo hitzaldi zein elkarrizketetan, elikaduran adituak diren pertsonen ehuneko txiki horretan bilatzea zaila egingo zaizuelakoan, gogoratu ezazue dietista-nutrizionisten %80a baino gehiago emakumeak* direla. ■

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.mendiaoptika.eus

Emakumeak, izen-abizenez

GURE BAZTERRAK



Burgu

Kuadrilla: Lautada.

Udalerria: Burgu.

Biztanleak: 181 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Arabako Handia Burgu inguruan bizi izan zen; kondairen arabera, Euskal Herriko gizonik indartsuena Arburukoa baitzen.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ESTITXU
UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Udalerria eta herria da aldi berean Burgu. Zazpi herrik osatzen dute udalerria: Añua, Arbulu, Argomaiz, Azua –1957 urtera arte Orenin herri hustuarekin Ganboa udalerraren barruan egon zen–, Gazeta, Ixona eta Burgu bera.

Herriko izen ofiziala Elburgo/Burgelu bada ere, Euskaltzaindiak 2017an argitaratutako Arabako herri izendegiaren arabera, Burgu da euskal izena.

1337. urtean Gaztelako Alfonso XI. erregeak hiribildu izendatu zuen Burgu, hain zuzen herria erromatar garaiko ibilbidean kokatuta dagoelako, eta garai horretan bidaiari eta merkatari ugari ibiltzen zirelako bertatik. Nekazaritzari mende luzez lotutako herria eta ingurua da Burgu, eta horretan bizi zirenek batik bat zerealarekin lan egiten zuten.

XX. mendearen bigarren erdialdean, berriz, biztanle asko

galdu zituen Burguk, Arabako landa eremuko beste herri txiki askok bezala, baina 1990. hamarkadatik aurrera, garraiobideen hobekuntzak eta Gasteizek izan zuen hazkunde ekonomikoaren eraginak bultzatuta, biztanle berrak joan ziren bertara bizitzera, Burgura eta Argomaiz herrietara batez ere.



Eraikin nabarmenen artean daude Burguko bolatokia, herriko pikota eta Burguko 19. etxea, EAEko Kultura Ondasunen artean sailkatuak.

Dena den, ondare artistikoaz gainera, giza ondare handia gorde eta nabarmendu dute herriko biztanleek, batik bat bertako emakumeek. Hala, 2010. urtean, ikerketa bat sustatu zuen Argia Emakumeen Taldeak Burguko historia genero ikuspegitik azaltzeko eta herriko emakumeen historia jasotzeko.

Ikerketari esker, Victoria Ladron de Gebara udal idazkariaren alaba, Margari Elorza, Faustina Ruiz de Egilaz, Epi Elorza, Estefana herriko emagina eta udalerriko beste hainbat emakumeren bizitza eza-gutzero eman zuten, eta garai latzetan egindako lana nabarmendu zuten. Sarritan aitzindariak izan ziren emakume hauek nekazaritzan eta abeltzaintzan, eta zaintzan buru-belarri ibilitakoak dira.

EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Ezberdintasunak

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA 6. MAILA

Denborapasa honetan gauza berdin asko daude, baina baita 5 desberdintasun ere. Aurkitu bostak eta aurkitzen duzuna biribildu.



Labirintoa

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA 6. MAILA

Ez dakigu egia ote den, baina, esaten dutenez xagui gazta asko gustatzen zaie. Laberinto honetan, xaguari gazta jatera iristeko bidea aurkitzen lagundu behar diozu.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Hala Bedin afaria Bi lagunentzat

Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzat afaria zozkatuko du ALEAk, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Zozketan parte-hartzeko, eman izena uztailaren 23a baino lehen; hilaren 26ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.

Irabazleak:

Parralen bazkaria: Ane Larrañaga Ormazabal.

GoPro motako kamera bat: Koldo Markinez.

Propagandhi, Adrenalized eta La Armada kontzertuan: Ekiñe Landaluze Vigo eta Gorka Guerra.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Argia Laspeñas Urzelai Gorbeialdea

Uztailak 13. 3 urte.

Zorionak Argia!!! 3 urte jada. Besarkada haundia etxekoen partez.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Uztailaren 12tik 18ra

Euskararen agenda

MUSIKA

EKORA Kolme Katu

Vital Araban Zehar programa.
Larunbata 13, 20:00etan, plazan.

GUARDIA Udal musika banda

Herriko musika taldearen eskutik.
Igandea 14, 20:00etan, plazan.

ARAMAIO Nok Daki

Malicken kontzertuarekin batera.
Osteguna 18, 19:00etan, Iturrietan.

BERTSOLARITZA

LEGUTIO Lagun artekoa

Gaztetxearen bigarren urteurrena.
Txaber Altube, Aroa Arrizubieta eta
Aitor Bizkarra bertsolariekin.
Larunbata 12, 21:30ean, gaztetxean.

ARAMAIO Bertso saioa

Xabi Igoa, Ane Zuazubiskar eta Aitor
Ugarte bertsolariekin.
*Igandea 14, 14:00etan, San
Kristobalen.*

GASTEIZ Bertso hop saioa

Izar Mendiguren, Iker Pastor eta Iñaki
Viñaspre bertsolariekin.
*Asteazkena 17, 20:00etan,
Errekaleorren.*

HAURRAK

GASTEIZ 'Txoriak txori'

Sarinizirkoren eskutik. Dibertikale
jaialdiaren barruan.
*Ostirala 12, 19:30ean, Umandi
ikastolako patioan.*



ESKEAN KRISTO

MURGIA Eskean Kristo

Zuiako X. Gazte Eguna ospatuko dute
larunbatean. Goizean goizetik hasiko
dira jarduerak, kuadrillen arteko
gazte olinpiadekin. Bazkariaren
ostean, Ane Labaka eta Xabi Igoaren
bertso saioa izango da, eta Eskean
Kristo eta Bassagain Soinu Bandaren
kontzertuekin amaituko da.
Larunbata 13, 11:30etik aurrera.

GASTEIZ Hezeguneko ezkutuko biztanleak

5-10 urte bitartean.
*Larunbata 13, 11:30ean, Ataria
gunean.*

IKUS ENTZUN

GASTEIZ 'Gure oroitzapenak'

Hamabi zinemagilek Joseba
Sarrionandiaren idazlanak
interpretatu dituzte pelikula honetan.
Pelikularen ostean, solasaldia izango
da Maider Oleaga eta Oskar Alegria
zuzendariekin. Zineleku egitasmoaren
barruan.
Osteguna 18, 22:00etan, Baratzan

BESTELAKOAK

GASTEIZ Zabalgana Kantuz

Zabalgana Euskara Taldeak
antolatutako jarduera. Auzotik
kantujira egingo dute.
*Larunbata 13, 13:00etan, Bastida
plazan.*



uztailak **20** de julio

euskal sagardo araba Gasteizen



hazi



gasteiz on



LABORAL



Goiza/Mañana 12:00-14:30 • Arratsaldea/Tarde 19:00-21:30

Aihotz Plaza / Plaza Machete

Euskal Sagardo dastatze gidatuak Mikel Garaizabalen eskutik
Catas guiadas de Euskal Sagardoa, de la mano de Mikel Garaizabal

BERTAKO PRODUKTU
PINTXOAK, MUSIKA,
KONTZERTUAK...

PINCHOS DE
PRODUCTO LOCAL,
MÚSICA, CONCIERTOS...

• KUARTANGO Kuartango • ITURRIETA Arretxu • TREBIÑU Trebiñu • AKARREGI Herrera
• ALTZUETA Herrera • ITXASBURU Herrera • LIZEAGA Arretxu • ZELAIA Herrera

